

KAIAREN ERABILERA MUGATZEN DUTEN ERABAKIAK DIRELA ETA, UDAL GOBERNUAREN JARRERARI BURUZKO INTERPELAZIOA

Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 97. artikulua ematen dion aukera baliatuz, OSOKO BILKURAN PREMIAZ AZTERTZEKO INTERPELAZIO ZUZEN hau egiten dio Eneko Goia alkate jaunari, KAIKO ARRAPALAREN SARBIDEA MUGATZEN DUTEN HESIEI BURUZKOA.

JUSTIFIKAZIOA

Eusko Jaurlaritzaren Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak Donostiako kaiko arrapalaren sarbidea mugatzea erabaki zuen 2020ko uztailaren 24an. Jaurlaritzak ohar batean azaldu zuenez, COVID-19aren hedapena saihesteko hartu zuten neurria.

Erabaki honek hautsak harrotu zituen Parte Zaharreko eta kaiko bizilagunen, eta oro har, kaiko erabiltzaileen artean. Izan ere, ez zen hori izan inguru horretan espazioaren erabilerari ezarri zitzaion mugapen bakarra, besteak beste, Klub Nautikoaren inguruak ere itxi egin baitziren. Uretara sartzeko sarbide guztiak ixteko erabakiaz gain, hainbat guneren pribatizazioa edo arrantza debekatu izana ere salatu zuten bizilagun eta erabiltzaileek. Zentzu honetan, sinadura bilketa bat abiatu zuten “guztion *plaza* den kaiaren pribatizazioa salatu eta Jaurlaritzari bilera bat eskatzeko”.

Azkenean, Jaurlaritza eta bizilagunen arteko bilera hori iazko irailean egin zen, eta bertan, berriro, adierazi zitzaien orduan hartutako neurriek COVID-19ak eragindako testuinguruari erantzuten ziotela.

Urte bete igaro den honetan, eta hondartzetako garaia irekitzearekin batera, kaiko bizilagunek salatu dute berriro ere arranpala hesitu egin duela Eusko Jaurlaritzak,

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 – www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

eta oraingoan erabilitako argudioa “jarduera nautikoen segurtasuna bermatzeko” izan da. Argudio aldaketa honek kaiko bizilagunen kezka areagotu ditu, izan ere, erabakiaren atzean bestelako helburu batzuk ohartzen baitituzte.

2020ko irailean Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aurkeztutako interpelazioari erantzunez, Eneko Goia alkate jaunak kaiko bizilagunen eta Jaurlaritzaren artean mediatzeko konpromisoa agertu zuen, bera ere orduan sortutako egoerarekin ez-ados zela adieraziz.

Hori dela eta, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta ez du Udal Gobernuak auzi honetan publikoki esku hartu, gauza jakina denean inguruko bizilagunek eta donostiar askok kaiarekiko duten atxikimendua?
- Uste al du Udal Gobernuak egokiak direla kaian ezarri diren debeku eta mugapenak?

Donostian, 2021ko ekainaren 23an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia